

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik tasaren ezarpena behin betiko onartzea eta hura arautzen duen ordenantza fiskala behin betiko onartzea

Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioek toki jabari publikoaz egiten duten aprobetxamendu berezirako tasa arautzen duen zerga ordenantza hasieran onesteko erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren, Udalbatzak 2022ko azaroaren 2ko saioan hartu zuena eta 2022ko azaroaren 9ko 128. ALHAOn argitaratu zena, eta epe horretan ez denez ordenantzaren inguruko erreklamaziorik aurkeztu, aipatutako erabakia behin betikoa da, bat etorrit Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19.3 artikuluan eta Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan xedatutakoarekin.

ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA, URA ETA HIDROKARBURUAK GARRAIATZEKO INSTALAZIOEK TOKI JABARI PUBLIKOAZ EGITEN DUTEN APROBETXAMENDU BEREZIRAKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

HITZAURREA

Araudi zailtasunak ikusita, Espainiako Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluek ezarritakoak, eta Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 23.1 A) artikulua eta hurrengoak aintzat hartuz, bereziki testu horretako 27.1 artikulua, zerga ordenantza honetan Energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioek toki jabari publikoaz egiten duten erabilera edo aprobetxamendu berezirako tasa ezartzen eta arautzen da, ordenantza honetan jasotako tarifekin eta araubidearekin bat etorrit; oinarritzat hartu den nahitaezko txosten tekniko eta ekonomikoko kalkulu metodoa eta aurreikusitako parametroak zuzenbidearekin bat datoz, Auzitegi Gorenak adierazi duenez; horretarako epai hauek aipatu dira: 2708/2016 Epaia (1117/2016 Kasazio Errekurtsoa); 2726/2016 Epaia (436/2016 Kasazio Errekurtsoa); 49/2017 Epaia (1473/2016 Kasazio Errekurtsoa), 489/2017 Epaia (1238/2016 Kasazio Errekurtsoa), 292/2019 Epaia (1086/2017 Kasazio Errekurtsoa), 308/19 Epaia (1193/2017 Kasazio Errekurtsoa), 1649/2020 Epaia (3508/2019 Kasazio Errekurtsoa), 1659/2020 Epaia (3099/2019 Kasazio Errekurtsoa), 1783/2020 Epaia (3939/2019 Kasazio Errekurtsoa) eta 275/2021 Epaia (1986/2019 Kasazio Errekurtsoa), besteak beste; ordenantza eredu hau baliozkotu dute eta bertako edukia eta esijentziak finkatu dituzte.

1. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza honek arautzen duen tasa ordaindu behar dute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 35. artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridiko, sozietate zibil, ondasunen erkidego eta gainerako entitateek, gero azalduko diren espezifikazio eta zehaztapenekin toki jabari publikoa erabili edo haren aprobetxamendu bereziari onura ateratzen badiote edo onura horiek jasotzen ari badira.

Ordenantza honen aplikazioa araubide orokorrari buruzkoa da, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testuategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 27.1.a) artikuluan ezarritako ordaindu beharreko tasari dagokiona toki jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu bereziagatik, baldin eta ez badira bizilagun guztiei edo gehienei eragiten dien interes orokorreko zerbitzuen enpresa hornitzaileak eta ez badute udal bide publikoen lurra, lurpea edo hegala okupatzen (27.1.c) artikuluan aurreikusitako baldintzak).

2. artikulua. Zerga egitatea

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 23. artikuluekin bat etorritik, toki jabari publikoa lurlean, lurpean edo hegalean erabiltzeak edo aprobetxamendu berezia egiteak osatzen du zerga egitatea, honako hauekin eginez gero:

a) Energia garraiatzeko instalazioak eta haien funtsezko elementu guztiak (honako hauek, adibidez: ainguraketa kutxak; dorre metalikoak; transformadoreak; energia elektrikoa, gasa, ura edo bestelako energia hornidurak garraiatzeko edo banatzeko instalazioak edo lineak; ponpatzeko instalazioak eta antzeko gainerako elementuak, baldin eta energiarekin zerikusia badute eta atal honetan jasota egon ez arren toki jabari publikoa aprobetxatzea edo erabiltzea berekin badakarte).

b) Gasa, ura, hidrokarburoak eta antzekoak garraiatzeko instalazioak.

Lehen aipatu diren eta, oro har, jabari publikoa materialki okupatzen duten instalazioak erabili behar direnean gertatuko da toki jabari publikoaren aprobetxamendu berezia.

Ordenantza honen ondorioetarako, toki jabari publiko gisa ulertzen dira udal honen titular-tasuneko udal mugartean dauden zerbitzu publikoko edo jabari publikoko erabilera ondasun guztiak, baita auzokideei dagozkien ondasunak ere, ondare ondasun gisa deitutakoak salbuetsiz.

3. artikulua. Subjektu pasiboak

Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun kontzeptuan, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 35. artikuluan aipatzen diren toki jabari publikoa erabili edo modu berezian aprobetxatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak.

Batez ere, tasa honen subjektu pasibo izango dira, geroago aipatuko diren kategoria eta klaseekin, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 35.3 artikuluan aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, uraren, gasaren, elektrizitatearen eta hidrokarburoen sektoreetako enpresa edo ustiatzaile direnak, baldin eta toki jabari publikoa beraien mesedetan modu berezian baliatu, erabili edo aprobetxatzen badute, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 23. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuren baten arabera, esaterako energia elektrikoa, hidrokarburoak (gasbideak, oliobideak eta antzekoak) eta ura ekoizti, garraiatu, banatu, hornitu eta merkaturatzen duten enpresak, baita horien elementu gehigarriak eta beharrezkoak ere udal honen udal mugartean edo beste edozein lekutan zerbitzua emateko, baina udal honetako udal jabari publikoa aprobetxatu edo erabiltzen badute, instalazioekin eragina sorraziz toki jabari publikoan.

4. artikulua. Zerga oinarriak, tasak eta kuotak

Ordenantza honetan araututako tasen zenbatekoa honakoa izango da:

Zerga kuota eranskinean jasotako tarifetan bildutakoa da, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 27.1.a) artikuluan aurreikusitakoaren bat etorritik, toki jabari publikoa erabili edo modu berezian aprobetxatzeagatik.

Toki jabari publikoaren aprobetxamendu berezi edo erabilera hori egiteagatik aurreikusitako tasen zenbatekoa finkatzeko erreferentzia gisa hartuko da aprobetxamendu edo erabilera horren ondoriozko erabilgarritasunak merkaturatze izango lukeen balioa, eraginpeko ondasunak jabari publikokoak ez balira bezala, merkaturatze balioa agerian jartzen duten txosten tekniko-ekonomikoak aintzat hartuz. Txosten hori espedientera gehitu da, erabakia hartzeko, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hartara, eta bat etorri Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 27. artikuluko 1. a) apartatua-rekin, erabilera edo aprobetxamendu bereziaren izaera zehatza kontuan hartuta, kasuan kasuko zerga kuota kalkulatu da hainbat elementuren kasuan, besteak beste, dorreak, euskarriak, posteak, tutuak, eroaleak, errepikagailuak eta abar, erabilera, jabari edo zerbitzu publikoko ondasunak eta ondasun komunak zeharkatzen badituzte edo horietan jarrita badaude, subjektu pasiboek ez daukatenean ukitutako lurren gaineko jabetzarik, baina, hala ere, aprobetxamendu komun edo publikoari kalte egiten diote, horietatik haien enpresa jarduerarako erabilera edo aprobetxamendu berezia lortzen baitute.

Zerga kuota kalkulatzeko, lehenik eta behin, okupazioaren zerga oinarria kalkulatu behar da. Azterketak islatzen duen instalazioaren, helburuaren eta motaren arabera, okupazioaren lurzoruaren eta instalazioen guztizko balioak zehaztuko dute zerga oinarria eta, horri, erabilera eta jabari publikoko ondasunen lagapenari buruzko arauetako aginduei erreparatuta, azterketak berak jasotzen duen zerga tasa aplikatuko zaio. Beraz, kuota ez da ateratzen zerga oinarria osatzen duen instalazio eta okupazioen balio zuzenetik, hari zerga tasa aplikatuzetik baizik.

Horretarako, eta Auzitegi Gorenak emandako epai guztietan (2020ko abenduaren 3koa) ezarritako eskakizunaren arabera, azterlana justifikatzeari dagokionez, bi zerga tasa desberdin ezartzen dira, toki jabari publikoaren erabilera zenbaterainokoa den kontuan hartuz:

a) Ehuneko 5a, lotura kaxak, metalezko dorreak, euskarriak, transformadoreak, biltegiak edo antzeko elementuak bezalako instalazioen aprobetxamendu berezietan.

b) Ehuneko 2,5a gainerako elementuen aprobetxamenduan, hala nola aireko lineak edo energia eramateko kableak.

Horren ondorioz, tasaren zerga kuota ordenantza honen parte den txosten tekniko ekonomikoari dagokion tarifan eranskinean dago. Txosten horretan erabilitako metodologiarekin kasu bakoitzari dagokion zerga kuota lortu eta jaso du.

5. artikulua. Zergaldia eta sortzapena

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, toki jabari publikoaren erabileran edo aprobetxamendu berezian hasi edo lagatzeko kasuetan izan ezik. Kasu horietan hiruhileko hainbanaketa aplikatu beharko da, honako arau hauen arabera:

a) Aprobetxamendu berezia hastearen ondoriozko alten kasuan, ekitaldia amaitzeko geratzen diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, alta egindako hiruhilekoa barne hartuta.

b) Aprobetxamendu berezia uztearen ondoriozko bajen kasuan, ekitaldia hasi zenetik igarotako hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, lagatzea gertatu den hiruhilekoa barne hartuta.

2. Ordenantza honetan araututako tasa ordaintzeko betebeharra honako une hauetan sortzen da:

a) Toki jabari publikoaren aprobetxamendu edo erabilera berriak direnean, dagokion lizentzia eskatzeko garaian.

b) Ordenantza honetako 1. artikulua aipatzen duen toki jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak edo erabilerak lizentzia edo baimenik behar ez duenean, toki jabari publikoaren aipaturiko aprobetxamendua edo erabilera hasi den garaian.

3. Toki jabari publikoaren aprobetxamendu bereziak hainbat ekitalditan luzatzen direnean, tasaren sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gauzatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du.

6. artikulua. Kudeaketa-arauak

1. Subjektu pasiboari kuotak jakinaraztearen bidez eskatuko da tasa, ez badago autolikidaziorik, edo subjektu pasiboak ez badu deklaraziorik aurkezten zerga kuotak kalkulatzeko elementuei eta gainerakoei buruz. Horretarako, azpiegituren inbentarioa egingo da, eta bertan azpiegitura guztiak, luzera eta motak zehaztuko dira.

2. Tarifen arabera ordaindu beharreko kopuruak eskatutako edo egindako aprobetxamendu bakoitzeko eta erabilera bakoitzeko likidatuko dira, era honetan:

a) Aprobetxamendu berrien emakiden kasuan, aprobetxamendu bereziaz gozatzeko baimen eskaerarekin batera, behar bezala beteta aurkeztuko da tasaren autolikidaziorako inprimakia; gainerako kasuetan artikulua honen 2. apartatua aplikatuko da, hurrengo paragrafoarekin lotuta.

Bestela, idazkaritzan ere aurkez daitezke aitorpenaren elementuak, eta hango langileek lagunduko diote interesdunari zorra zenbatekoa den zehazten. Kasu horretan, interesdunari abonua agiria emango zaio, kuota une horretan bertan ordaindu ahal izateko, edo dagokion epean, aipatutako agirian adierazitako ordainketa lekuetan.

b) Lehendik dauden edo baimenduta dauden aprobetxamendu edo erabileren kasuan, urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da tasa. Ordainketa errazteko, edo subjektu pasiboak ez baldin badu daturik ematen, udal honetan dagokion likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari etxera bidali ahal izango dio likidazio agiri bat, ordainketa egin dezan banketxe laguntzailean edo udal aurrezki kutxan.

Hala ere, aipatutako ordainketa agiria ez jasotzeak ez du esan nahi udalak ezarritako epean tasa ordaintzeko betebeharra bertan behera geratzen denik.

3. Subjektu pasiboak tasaren ordainketa helbideratzeko eskatu ahalko du; hala eginez gero, kargua borondatzeko ordainketa aldiaren azken hamabostaldian aginduko da kontu korrontean, eta horrelakoetan tasa honen zerga kuotaren ehueko 5eko hobaria ezarriko da, bat etorritoki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen irailaren 29ko 1/2021 Arau-gintzako Foru Dekretuaren 9.1 artikuluan ezarritakoarekin.

7. artikulua. Tasak jakinaraztea

1. Ordenantza honen hizpide diren aprobetxamendu edo erabilerengatiko zerga zorra interesdunari jakinaraziko zaio autolikidazioa aurkezteko unean, edo likidazioa egiteko unean, autolikidaziorik aurkezten ez bada.

Edonola ere, eta aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, autolikidazioa egiaztatzean gaizki eginda dagoela ikusten bada, likidazio osagarria egingo da.

2. Ordenantza honen xede diren aprobetxamendu berezi edo erabilera jarraituengatiko tasei dagokienez, aldizkakoak badira, subjektu pasiboari pertsonalki jakinaraziko zaio likidazio bidez, eta une horretatik aurrera zergadunen erregistroan izena emanda dagoela ulertuko da. Hurrengo ekitaldietako tasa pertsonalki jakinarazi ahalko zaio subjektu pasiboari, edo modu kolektiboan, errola iragarki taulan jarritik denbora tarte batez (probintziako aldizkari ofizialean iragarriko da tarte hori).

3. Ordenantza honetan araututako erabileraz edo aprobetxamenduen emakidaz interesa duten pertsona fisiko edo juridikoen eta gainerako entitateek, edo administrazio emakiden eta bestelako baimen legalen titularrak direnek, hala badagokio, nahitaezko udal lizentziarik ez badaukate, eskatu egin beharko dute eta lege izapide aplikagarriak bete beharko dituzte; lizentziarik ez izateak ez ditu salbuetsiko tasa ordaintzetik.

4. Ordenantza honek hizpide dituen ondasunen gaineko okupazioa baimendu ondoren, edo okupazioa ezarri ondoren, aprobetxamendu edo erabilerarako baimenaren iraupena zehatz definitu ez bada, luzatu egin dela ulertuko da ordenantza honen ondorioetarako, harik eta subjektu pasiboek baja aitortzea aurkeztu arte.

5. Baja aurkezteak ondorioak izango ditu tarifen epigrafeetan adierazitako ondorengo denbora tarte naturalaren lehen egunetik aurrera. Baja ez aurkezteak finkatuko du tasa ordaintzen jarraitzeko betebeharra.

8. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Arau hauste eta zehapenen araubideari dagokionez, indarrean dagoen Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan xedatutakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, une honetan duen edukiarekin, probintziako aldizkari ofizialean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean; 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, eta indarrean jarraituko du datozen ekitaldietan, berariaz aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Zalduondo, 2024ko urtarrilaren 2a

Alkatea

LURDES LEKUONA LABURU

1. ERANSKINA

1. ZERGA OINARRIA KALKULATZEKO TAULAK
2. ORDENANTZA TARIFAK

1.Zerga oinarria kalkulatzeko taulak

1. MULTZOA. ARGINDARBA, AIREKO LINEAK

INSTALAZIOA	BALIO UNITARIOA				Zerga-oinarria	LURRALDE MOTAREN ARABERARAO BALIOKIDETZA (euro/ml) (C)	ERDIALEEN HEGALEAN ZERGA-OINARRIA (euro/ml) (A+B)ud.5	EGOKIAREN ZERGA-OINARRIA (euro/ml) (A+B)ud.5
	LURZORRIA (Euro/m ²) (A)	ERAKINA (Euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (Euro/m ²) (A+B)	RM=0.5 (A+B)xRM (C)				
MAILA BEREZIA								
A1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa U ₂ >400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	27,574	27,886	13,943	17,704	246,847	13,943
							euro/ml	euro/m ²
A2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa U ₂ >400 Kv. Oinarrizko zirkuitua	0,312	16,856	17,168	8,584	17,704	151,971	8,584
							euro/ml	euro/m ²
A3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 220 Kv<U<400 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	39,015	39,327	19,664	11,179	219,818	19,664
							euro/ml	euro/m ²
A4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 220 Kv<U<400 Kv. Oinarrizko zirkuitua	0,312	23,850	24,162	12,081	11,179	135,053	12,081
							euro/ml	euro/m ²
LEHENENGO MAILA								
B1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 110 Kv<U<220 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	26,333	26,645	13,323	6,779	90,313	13,323
							euro/ml	euro/m ²
B2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 110 Kv<U<220 Kv. Oinarrizko zirkuitua	0,312	20,137	20,449	10,225	6,779	69,312	10,225
							euro/ml	euro/m ²
B3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 66 Kv<U<110 Kv	0,312	20,325	20,637	10,319	5,650	58,300	10,319
							euro/ml	euro/m ²
BIGARREN MAILA								
C1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 45 Kv<U<66 Kv. Zirkuitu bikoitza edo gehiago	0,312	50,926	51,238	25,619	2,376	60,871	25,619
							euro/ml	euro/m ²
C2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 45 Kv<U<66 Kv. Oinarrizko zirkuitua	0,312	29,461	29,773	14,887	2,376	35,370	14,887
							euro/ml	euro/m ²
C3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 30 Kv<U<45 Kv.	0,312	28,323	28,635	14,318	2,376	34,018	14,318
							euro/ml	euro/m ²
HIRUGARREN MAILA								
D1 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 20 Kv<U<30 Kv	0,312	29,176	29,488	14,744	1,739	25,640	14,744
							euro/ml	euro/m ²
D2 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 15 Kv<U<20 Kv	0,312	20,553	20,865	10,433	1,739	18,142	10,433
							euro/ml	euro/m ²
D3 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 10 Kv<U<15 Kv	0,312	19,691	20,003	10,002	1,534	15,342	10,002
							euro/ml	euro/m ²
D4 MOTA	Goi-tentsioko aireko linea. Tentsioa 1 Kv<U<10 Kv.	0,312	14,534	14,846	7,423	1,517	11,261	7,423
							euro/ml	euro/m ²

U Tentsio nominala

220kVtik beherako tentsio nominala duten garraio-sareko lineak, zerga-helburuetarako, dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira.

I MULTZDA.II ARGINDARRA. LURPEKO LINEAK.

INSTALAZIOA	BALIO UNITARIOA			RM	LURZAL- MOTAREKI ARABERAKO BALIOKIDETZA (m ² /m)	ZERGA-ONARRIA (euro/m)	
	LURZORUA (euro/m ²) (A)	ERAKINA (euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (euro/m ²) (A+B)				
MALA BEREZIA							
A1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa U ₀ 400 Kv.	0,312	1185,928	1186,240	593,120	0,600	355,872
A2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 220 Kv<U ₀ < 400 Kv.	0,312	1111,808	1112,120	556,060	0,600	333,636
LEHENENGO MAILA							
B1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 110 Kv<U ₀ <220 Kv.	0,312	1063,406	1063,718	531,859	0,500	265,930
B2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 66 Kv<U ₀ < 110 Kv.	0,312	726,086	726,398	363,199	0,500	181,600
BIGARREN MAILA							
C1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 45 Kv<U ₀ < 66 Kv.	0,312	339,860	340,172	170,086	0,400	68,034
C2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 30 Kv<U ₀ < 45 Kv.	0,312	295,530	295,842	147,921	0,400	59,168
HIRUGARREN MAILA							
D1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 20 Kv<U ₀ < 30 Kv.	0,312	265,978	266,290	133,145	0,400	53,258
D2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 15 Kv<U ₀ < 20 Kv.	0,312	236,425	236,737	118,369	0,400	47,347
D3 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 10Kv<U ₀ < 15 Kv.	0,312	141,855	142,167	71,084	0,400	28,433
D4 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 10Kv<U ₀ < 10 Kv.	0,312	118,213	118,525	59,263	0,400	23,705

U Tentsio nominala

220Kvtik beherako tentsio nominala duten garraio-sareko lineak, zerga-helburuetarako, dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira.

II MULTZDA. GASA ETA HIDROKARBURUOK

INSTALAZIOA	BALIO UNITARIOA			RM	LURZORU- MOTAREKI ARABERAKO BALIOKIDETZA (C)	ZERGA-ONARRIA (euro/m ² ; euro/m ³) (A+B);(D);(E);(C)	
	LURZORUA (euro/m ²) (A)	ERAKINA (euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (euro/m ²) (A+B)				
A MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetera arteko diametroa.	0,312	16,387	16,699	8,350	3,000	25,049
B MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetetik gorako eta 10 hazbetera arteko diametrokoa.	0,312	28,677	28,989	14,495	6,000	86,967
C MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 10 hazbetetik gorako eta 20 hazbetera arteko diametrokoa.	0,312	46,088	46,400	23,200	8,000	185,600
D MOTA	Gas edo hidrokarburoen kanalizazioaren metro bat, 20 hazbetetik gorako diametrokoa.	0,312	49,160	49,472	24,736	10,000	247,360
E MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburoen depositu edo andela bat, 10 m ³ -ra artekoa.	0,312	63,500	63,812	31,906	100,000	3.190.600
F MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburoen depositu edo andela bat, 10 m ³ -ko edo goragokoa.	0,312	63,500	63,812	31,906	500,000	15.953.000

III MULTZOA. URA

INSTALAZIOA	BALIO UNITARIOA				RM	LURZORU- MOTAREN ARABAKO BALUKOITZEA (m ² /m) E1	ZERGA-ONARRIA (Euro/m ²) (A+B)+0,5x(C)
	LURZORUA (euro/m ²) (A)	ERAKINA (euro/m ²) (B)	HIGIEZINA (euro/m ²) (A+B)	0,5 (A+B)+0,5			
A MOTA Metro bat hodi, 10 cm arteko diametrokoa.	0,312	10,366	10,678	5,339	3,000	16,017	
B MOTA Metro bat hodi, 10 cm-tik gorako eta 25 cm-ra arteko diametroduna.	0,312	13,292	13,604	6,802	3,000	20,406	
C MOTA Metro bat hodi, 25 cm-tik gorako eta 50 cm-ra arteko diametroduna.	0,312	18,975	19,287	9,644	3,000	28,931	
D MOTA Metro bat hodi, 50 cm-tik gorako diametroduna.	0,312	22,869	23,181	11,591	3,000	34,772	
E MOTA Kanaleko metro lineal bat	0,312	26,532	26,844	13,422	D	13,422xD	

D kanalaren barne-perimetroa (m)

2. TARIFEN KALKULU-TAULAK

1. MULTZOA. ARGINDARRA. ARIKO LINEAK

INSTALAZIOA	ERAKINEN HESALEN ZERGA-ONARRIA (Euro/m ²) (A+B)+0,5(C)	LAGUNTZA ZERGA- ONARRIA (Euro/m ²) (A+B)+0,5	ERAKUNTZAKO HESALEN ERAKINEN TARBIA LAGUNTZA ZERGA-ONARRIA ZERGA MOTA (2,5N)(Euro/m ²)	LAGUNTZA ERERJAREN TARBIA LAGUNTZA ZERGA- ONARRIA ZERGA MOTA (2,5N) (Euro/m ²)	LAGUNTZA ERERJAREN TARBIA ERAKINEN HESALEN LAGUNTZA ZERGA- ONARRIA ZERGA MOTA (2,5N) (Euro/m ²)
MAIHA BEREZIA					
A1 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 0-400 kV. Zirkuitu bikaitza edo gehiago	246,847 euro/m ²	19,943 euro/m ²	6,171 euro/m ²	0,697 euro/m ²	0,349 euro/m ²
A2 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 0-400 kV. Oinarritako zirkuitua	151,972 euro/m ²	8,584 euro/m ²	3,709 euro/m ²	0,429 euro/m ²	0,215 euro/m ²
A3 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 220 kV-0-400 kV. Zirkuitu bikaitza edo gehiago	218,818 euro/m ²	19,664 euro/m ²	5,495 euro/m ²	0,983 euro/m ²	0,482 euro/m ²
A4 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 220 kV-0-400 kV. Oinarritako zirkuitua	135,053 euro/m ²	12,081 euro/m ²	3,376 euro/m ²	0,604 euro/m ²	0,302 euro/m ²
LEHENENGO MAILA					
B1 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 110 kV-0-220 kV. Zirkuitu bikaitza edo gehiago	90,313 euro/m ²	13,233 euro/m ²	2,258 euro/m ²	0,666 euro/m ²	0,333 euro/m ²
B2 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 110 kV-0-220 kV. Oinarritako zirkuitua	69,313 euro/m ²	10,235 euro/m ²	1,793 euro/m ²	0,511 euro/m ²	0,256 euro/m ²
B3 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 66 kV-0-110 kV	58,300 euro/m ²	10,319 euro/m ²	1,458 euro/m ²	0,516 euro/m ²	0,258 euro/m ²
BIGARREN MAILA					
C1 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 66 kV-0-110 kV. Zirkuitu bikaitza edo gehiago	69,871 euro/m ²	15,619 euro/m ²	1,523 euro/m ²	1,281 euro/m ²	0,640 euro/m ²
C2 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 45 kV-0-66 kV. Oinarritako zirkuitua	35,370 euro/m ²	14,887 euro/m ²	0,884 euro/m ²	0,744 euro/m ²	0,372 euro/m ²
C3 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 30 kV-0-45 kV	34,018 euro/m ²	14,318 euro/m ²	0,850 euro/m ²	0,716 euro/m ²	0,358 euro/m ²
HIRUGARREN MAILA					
D1 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 20 kV-0-30 kV	25,640 euro/m ²	14,744 euro/m ²	0,641 euro/m ²	0,737 euro/m ²	0,369 euro/m ²
D2 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 15 kV-0-20 kV	18,142 euro/m ²	10,483 euro/m ²	0,454 euro/m ²	0,522 euro/m ²	0,261 euro/m ²
D3 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 10 kV-0-15 kV	15,342 euro/m ²	10,002 euro/m ²	0,384 euro/m ²	0,500 euro/m ²	0,250 euro/m ²
D4 MOTA Goi-tentsioa ariko linea. Tentsioa 10 kV-0-15 kV	11,261 euro/m ²	7,423 euro/m ²	0,262 euro/m ²	0,371 euro/m ²	0,186 euro/m ²

U Tentsioa nominala
220kVtik beherako tentsioa nominala duten garraio-sareko lineak, zango-helburuetarako, dagokien tentsioaren kategorian sartuko dira.

I MULTZOA. II ARGINDARRA. LURPEKO LINEAK.

INSTALAZIOA		ZERGA-OINARRIA (euro/ml) (A+B)+0,5x(C)	ZERGA-OINARRIAREN TARIFA x ZERGA- MOTA(%) (euro/ml)
MAILA BEREZIA			
A1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa Ute 400 Kv.	355,872	17,794
A2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 220 Kv±U< 400 Kv.	333,636	16,682
LEHENENGO MAILA			
B1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 110 Kv±U<220 Kv.	265,930	13,297
B2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 66 Kv±U< 110 Kv	181,600	9,080
BIGARREN MAILA			
C1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 45 Kv±U< 66 Kv.	68,034	3,402
C2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 30 Kv±U< 45 Kv.	59,168	2,958
HIRUGARREN MAILA			
D1 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 20 Kv±U< 30 Kv	53,258	2,663
D2 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 15 Kv±U< 20 Kv	47,347	2,367
D3 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 10Kv±U< 15 Kv	28,433	1,422
D4 MOTA	Goi-tentsioko lurpeko linearen metro bat. Tentsioa 10Kv±U< 10 Kv.	23,705	1,185

U Tentsio nominala
ZD0004 beharrezko tentsio nominala duten garraio-sareko lineak, zerga-hurbuletarako, dagoelako tentsioaren kategorian sartuko dira.

II MULTZOA. GASA ETA HIDROKARBURUOK

INSTALAZIOA		ZERGA-OINARRIA (euro/neurri- unitatea) (A+B)+0,5x(C)	ZERGA-OINARRIAREN TARIFA x ZERGA-MOTA (%) (euro/neurri- unitatea)
A MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetera arteko diametroa.	25,049 (euro/ml)	1,252 (euro/ml)
B MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 4 hazbetetik gorako eta 10 hazbetera arteko diametrokoa.	86,967 (euro/ml)	4,348 (euro/ml)
C MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 10 hazbetetik gorako eta 20 hazbetera arteko diametrokoa.	185,600 (euro/ml)	9,280 (euro/ml)
D MOTA	Gas edo hidrokarburuen kanalizazioaren metro bat, 20 hazbetetik gorako diametrokoa.	247,360 (euro/ml)	12,368 (euro/ml)
E MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburuen depositu edo andela bat, 10 m3-ra artekoa.	3.190,600 (euro/Ud)	159,530 (euro/Ud)
F MOTA	Bultzada-instalazio bat edo gas edo hidrokarburuen depositu edo andela bat, 10 m3-koa edo goragokoa.	15.953,000 (euro/Ud)	797,650 (euro/Ud)

III MULTZOA. URA

INSTALAZIOA		ZERGA-OINARRIA (euro/ml) (A+B)+0,5x(C)	ZERGA-OINARRIAREN TARIFA /ZERGA-MOTA (%) (euro/ml)
A MOTA	Metro bat hodi, 10 cm arteko diametrokoa.	16,017	0,801
B MOTA	Metro bat hodi, 10 cm-tik gorako eta 25 cm-ra arteko diametroduna.	20,406	1,020
C MOTA	Metro bat hodi, 25 cm-tik gorako eta 50 cm-ra arteko diametroduna.	28,931	1,447
D MOTA	Metro bat hodi, 50 cm-tik gorako diametroduna.	34,772	1,739
E MOTA	Kanaleko metro lineal bat	13,422xD	0,671xD

D Kanalaren barne-perimetroa (m)